

**Xabier  
Lertxundi  
Asteasuinzarra**

Hernaniko  
alkategaia


Candidato  
a la alcaldía de  
Hernani

**ehbildu**

**Maite  
duzun  
Hernani**

**EGINGO DUGU.**

# Herritarrekin egindako herri bizi eta bizigarriagoa



## EGINGO DUGU.

Herritar guztientzat bizitza duinak bermatu eta erronka berriei soluzio berriekin erantzungo dien eskaintza da EH Bildurena. Herritarrekin batera lidergoa konpartituz, erreferente bihurtu den gobernatzeko modu eraldatzailea abiatu dugu legegintzaldi honetan eta horretan sakontzea da datozen urteetarako gure helburua. Egindako bidean pauso berriak emateko garaia da.

Kudeaketa zintzo eta gardenarekin, erabakiak eragileekin eta herritarrekin batera hartuz, zerbitzu publikoak indartzen jarraitzea izango da gure lehentasuna. Hori baita herria egiteko gure eredu-a: herri bizi eta bizigarria, herritarren interesen defentsan, guztion oinarrizko beharrak asetuko dituena.

Gure herrian, egiteko modu berri hori Hernani Burujabe proiektuak ordezkatzeko duela ulertzen dugu, udalgintza egiteko beste eredu bat proposatzen duelako. Eraldaketa horretan gure alea jarri eta herriaren garapen sozio-ekonomikoan aurrera egiteko proiektu zehatzak abiatzera goaz: eguneroko beharrak asetuko dituzten proiektu txikienetatik, denontzat herri hobea lortzeko jomugan ditugun proiektu handiagoetara.

Azken hamarkadetakako erronka handien aurrean gaude, eta horretarako, ezinbestekoa izango da gizarteko gero eta sektore gehiago bilduz, bidea elkarrekin egitea.

Maite dugun herria egitera goaz!

## Un pueblo con vida y más habitable.

En EH Bildu trabajamos para garantizar vidas dignas para todas las personas, respondiendo a los nuevos retos con nuevas soluciones. Compartiendo liderazgo con la ciudadanía, en esta legislatura hemos puesto en marcha una nueva forma de gobernanza que se ha convertido en referente. Nuestro objetivo para los próximos años es profundizar en ello. Es hora de dar nuevos pasos en el camino emprendido.

Nuestra prioridad será seguir fortaleciendo los servicios públicos con una gestión honesta y transparente y tomando decisiones conjuntamente con los agentes y la ciudadanía. Porque este es nuestro modelo: un pueblo vivo y habitable, que defiende los intereses de la ciudadanía y que satisfaga las necesidades básicas de todas las personas.

Entendemos que esta nueva forma de gobernar está representada en nuestro pueblo por el proyecto Hernani Burujabe, donde se propone otro modelo de municipalismo. Queremos aportar en esta transformación poniendo en marcha proyectos concretos para el desarrollo socioeconómico de Hernani: desde proyectos pequeños para cubrir las necesidades del día a día, hasta proyectos más grandes que nos lleven a ser el pueblo al que aspiramos.

Estamos ante los mayores retos de las últimas décadas y para ello será imprescindible sumar cada vez más sectores de la sociedad a este proyecto y recorrer el camino de forma conjunta.

¡Vamos a construir el pueblo que amamos!





- 1 Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
- 2 Patxi Iburguren Etxeberria
- 3 Itsaso Lekuona Legorburu
- 4 Axier Mingo Arruabarrena
- 5 Aitor Lukas Solano
- 6 Amaia Miner Canflanca
- 7 Ainara Atorrasagasti Urizar
- 8 Aitor Huizi Izagirre
- 9 Urko Lazkoz Fernandes
- 10 Oier Agirresarobe Lizaso
- 11 Kistiñe Rodriguez Polaina
- 12 Lur Etxeberria Iradi
- 13 Unai Alberdi Padrones
- 14 Naiara Ibeas Ortiz
- 15 Joxemari Elordi Jauregi
- 16 Pili Lujanbio Olano
- 17 Aitziber Larramendi Muxika
- 18 Mikel Von Wichmann Pavletich
- 19 Mayi Ugartemendia Urkiola
- 20 Lander Ibarburu Lizeaga
- 21 Maribel Flores Godoy
- 22 Araia Uitz Sanchez
- 23 Alex Erdozia Igoa
- 24 Teresa Toda Iglesia

# Gure taldea

---

## *Nuestro equipo*

---

@EHBilduhernani | ehbilduhernani | hernani@ehbildu.eus | @ehbilduhernani  
 ehbildu.eus/herriak/hernani/albistek

Udal kudeaketan zein herrigintzako arlo ezberdinetan esperientzia dugun herritarrek osatzen dugu EHBilduren zerrenda. Talde anitza gara, egunerokoan egiten dugun lanagatik edota herri mugimenduetan dugun parte-hartzeagatik, herriaren errealitatea ondo ezagutzen dugunak. Arduraz eta ilusioz eman dugu pausoa, herria egiten jarraitzeko helburuarekin.

La lista de EH Bildu la formamos personas con experiencia tanto en gestión municipal como en diferentes ámbitos del movimiento popular. Somos un grupo plural, que por nuestra labor diaria o por nuestra participación en las asociaciones del pueblo, conocemos bien la realidad que nos rodea. Asumimos esta tarea con responsabilidad e ilusión, queriendo seguir contribuyendo a la sociedad.

# Erdigunea berrituz, herri bizigarriagoa sortu

HERRIAREN ERDIGUNEA BIZIBERRITZEKO HELBURUAREKIN, KULTUR EKIPAMENDU BERRIARI LEKU EGIN, LUR AZPIKO APARKALEKUA SORTU, EZKIAGA PASEALEKUA BERRITU ETA OINEZKOENTZAKO ESPAZIOA IRABAZIKO DUEN ESKU-HARTZE URBANISTIKO INTEGRALA ABIATUKO DUGU. MODU HONETAN, LIZEAGA ETA IZPIZUA ARTEKO EREMUA, HERRITARRONTZAKO TOPALEKU ERABERRITUA IZANGO DA.

## HERRI EREDU BERRI BATERANTZ

Herritarrak harremanetan jarriko dituen herri bizia nahi dugu, guztiontzat bizigarriagoa izango dena. Horrela irudikatzen dugu Hernani. Jakina baita pertsonen arteko harremanek eragin positiboa dutela norberaren ongizatean eta hirigintza ereduak horretan eragin zuzena duela. Hernaniarron urteetako eskaera izan den auditorioa ere bertan egiteko aukera aztertuko dugu, kulturak egiten gaituelako herri eta gizarte kohesiorako ezinbesteko tresna dela ulertzen dugulako.

Denontzat esanguratsua den gunea da Urumea Ikastolaren eraikin zaharrak, Ezkiaga pasealekuak eta Izpizua kaleak osatzen dutena. Horregatik, gunen eraberritze integrala, guztion artean landu eta diseinatu beharrekoa dela uste dugu.

Herritarren bizitzak hobetzen dituen hirigintza ereduak da gurea.

## HACIA UN NUEVO MODELO DE CIUDAD

Queremos una ciudad viva y más habitable, donde las personas se relacionen. Así es como imaginamos Hernani. Porque es sabido que las relaciones interpersonales influyen positivamente en el bienestar personal y el modelo de urbanismo influye directamente en ello. También analizaremos la posibilidad de ubicar en este espacio el auditorio demandado durante años por los y las hernaniarras, porque entendemos que la cultura es una herramienta imprescindible para la identidad y la cohesión social.

El espacio que conforman el antiguo edificio de la Ikastola Urumea, los Tilos y la calle Izpizua tiene mucha importancia. Por ello, consideramos que la intervención integral en esta zona debe diseñarse colectivamente.

Nuestro modelo de urbanismo es aquel que mejora la vida de las personas.



## KULTUR AUDITORIOA ETA LUR AZPIKO PARKINA

Gunea hau modu parte-hartzailean diseinatu da eta kultur azpiegituraren ezaguerriak kultur eragileekin landuko dira. Erdigunean dagoen aparkaleku arazoei aurre egiteko lur-azpiko parkina eraikitzeko proiektuarekin hasiko gara. Kotxeak lur-azpitik bideratuta, oinezkoentzat seguruagoa izango den espazioa sortuko dugu.

## AUDITORIO CULTURAL Y PARKING SUBTERRÁNEO

El diseño de este espacio se hará de forma participativa y las características del auditorio las trabajaremos con los agentes culturales. Para dar respuesta a los problemas de aparcamiento del centro, comenzaremos con el proyecto de un parking subterráneo. Con el paso de los vehículos por el subsuelo, crearemos un espacio peatonal más seguro.

▲  
Auditorio berria eta Ezkiaga berrituaren irudi posible bat. Proiektuaren diseinua herritarrekin eta eragileekin batera egingo dugu. Esku-hartzea faseka egingo da.

*Herri eredu berri baterantz*

*lehen pausoak ematen hastea*

*proposatzen dugu. Herriari,*

*elkarrekin irudikatuko dugun*

*erdigunea eskaintzeko.*



# Sei proiektu zehatz herritarren bizitzak hobetzeko



## Denon bizitzak erdigunean jarriko dituen herri ikuspegi inklusiboa

Herri anitza da gurea, eta aniztasun horrek aberasten gaitu. Beraz, hori zaindu eta denon bizitzetan eragina duten erabakietan parte-hartzea sustatzeko, ezinbestekoa da parte-hartzeko zailtasun gehien dituztenen begirada kontuan hartzea. Guztiontzako herria izatea nahi badugu, ikuspegi inklusiboa lantzea dagokigu, errealitate ezberdinei ahotsa eman eta tokia egitea. Herri hezitzailea, haurrekin, gazteekin, adinekoekin, emakumeekin, pertsona migratuekin, LGBT pertsonekin edota aniztasun funtzionala duten herritarrekin pentsatutako herria, denontzako herri hobeia izango delako.



## Auzozaintza proiektua auzo guztietara zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu

Bakardade egoera ez-hautatuan dauden adineko pertsonentzako programa berritzailea sortu dugu Hernanin. Bidelaguntza profesional baten bidez eta inguruko bizilagunen aktibazioarekin, egoera horretan dauden pertsonak berriz ere herriko bizitzan parte-hartzera animatzea da helburua. Gure herritik kanpo ere eredu izaten ari da Auzozaintza eta oso emaitza onak eman ditu martxan jarritako auzoetan. Elkarren arteko sareak sortu dituzte egitasmoari esker eta haien osasun fisiko eta mentalean onurak antzeman dira. Datozen hilabeteetan gainerako auzoetara zabaltzen hasiko gara, Hernani zaintzen duen herria izateko bidean pauso bat gehiago emateko.



## Energia sortu eta herritarren eskura utzi

Bizi dugun larrialdi klimatiko egoerak, energia trantsizioarako pauso sendoak ematera behartzen gaitu. Herrian plakak jartzeko planari jarraipena emango diogu, energia berriztagarria sortu eta justizia sozialeko irizpideekin banatzeko.



## Auzoen beharrezko eraberritzearekin jarraituko dugu

Azpiegitura eta hirigintza ikuspegitik berritzeko behar handiena duten auzoekin lanean jarraituko dugu. Horretarako, iaz berrartutako auzoetako bilera erronda errepikatuko dugu urtero, auzotarren beharrak entzun eta lehentasunak elkarrekin adosteko.



## Etxebizitza sozialak lehentasun modura

Etxebizitza eskubidea bermatzeko dauden zailtasunak ezagututa, eraikiko diren proiektu berrietan irizpide sozialeko etxeek lehentasuna izan dezaten lanean jarraituko dugu, alokairua eta gazteen emazteak emantzipazioa errazteko politikak sustatzearekin batera.



## Irisgarritasuna bermatzeko igogailu berria

Portu eta Elizatxo auzoak erdigunearekin lotuko dituen igogailuak garrantzia handia du. Horregatik, bizilagunekin batera etorkizuneko igogailuaren proiektua lantzen ari gara eta eskaera errealitate bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu.

# Seis proyectos para mejorar la vida de la gente



## Una visión inclusiva que ponga en el centro todas las vidas

El nuestro es un municipio con mucha diversidad y esa diversidad es la que nos enriquece. Por lo tanto, para fomentar la participación en las decisiones que afectan a la vida de todas las personas, es imprescindible tener en cuenta la mirada de quienes tienen más dificultades para participar. Si queremos que sea un pueblo para todos y todas, nos corresponde trabajar con una visión inclusiva, dar voz y hacer sitio a las diferentes realidades. Porque un pueblo pensado con niños, jóvenes, mayores, mujeres, personas migradas, comunidad LGBT o personas con diversidad funcional, va a ser un pueblo mejor para todas las personas que lo habitan.



## Nos comprometemos a extender el proyecto de Auzozaintza a todos los barrios

En esta legislatura hemos creado un programa innovador para personas mayores en situación de soledad no deseada. Con la ayuda de un acompañamiento profesional y la activación de su comunidad más cercana, se fomenta que las personas que se encuentren en esta situación vuelvan a participar en la vida comunitaria. Auzozaintza está siendo un referente también fuera de nuestro municipio y ha dado muy buenos resultados en los barrios donde se ha puesto en marcha. Gracias al proyecto se han creado redes y ya se aprecian mejoras en la salud de las personas mayores. En los próximos meses empezaremos a extender el proyecto a todo el municipio.



## Producir energía y dejarla en manos de la ciudadanía

La situación de emergencia climática que vivimos nos obliga a dar pasos firmes hacia la transición energética. Para hacer nuestra aportación en este camino, vamos a promover la generación y distribución de energía renovable con criterios de justicia social.



## Continuaremos con la necesaria rehabilitación de los barrios

Seguiremos trabajando en los barrios que tengan mayores necesidades desde el punto de vista urbanístico y de infraestructuras. Para ello, repetiremos anualmente la ronda de reuniones que retomamos el curso anterior, escuchando las necesidades de los y las vecinas y consensuando conjuntamente las prioridades de cada barrio.



## Las viviendas sociales como prioridad

Conociendo las dificultades existentes para garantizar el derecho a la vivienda, seguiremos trabajando para que en las nuevas promociones se dé prioridad a las viviendas sociales, junto al fomento de políticas públicas que faciliten el alquiler y la emancipación de los y las jóvenes.



## Nuevo ascensor para garantizar la accesibilidad

El ascensor que unirá los barrios de Portu y Elizatxo con el centro tiene una gran importancia. Por eso, estamos trabajando junto a los y las vecinas en el proyecto del futuro ascensor y nos comprometemos a hacer realidad esta demanda.





# Eskualdeko herritarren bizi baldintzak hobetzeko prest

BETERRI BURUNTZA ESQUALDEAREN GARAPEN SOZIOEKONOMIKO ETA INDUSTRIAL JASANGARRIRAKO GILTZARRI IZANGO DIREN LAN ILDOEN ALDE APUSTUA EGITEN DUGU. HURRENGO LAU URTEAK FUNTSEZKOAK DIRA NORABIDE HONETAN AUERRERAPAUOAK EMATEKO ETA EH BILDU PREST DAGO LEHENTASUNEZKO ERRONKA HONI BEHAR BEZALAKO BULTZADA EMATEKO.

*Enplegua, trantsizio energetikoa eta mugikortasun jasangarria dira lehentasunezko lan ildoak, aurrerapauso bat emateko garaia da.*

Enpleguan, plan orokor eta partekatua landuko dugu udalekin eta eragileekin, enplegu inklusiboaren alde eginez. Baita Ekonomia Sozial Eraldatzailean ere, ildo hau indartzeko baldintzak sortuko ditugu Beterri Saretuz bezalako eragileekin elkarlanean.

Turismoaren kasuan berriz, Usurbilen egin bezala, identitatean, baloreetan, naturan, ondarean eta proiektu eraldatzaileetan oinarritutako eskaintza proposatzen dugu, turismo eredu konbentzionala alboratuta. Plazaola bide berdea eta sagardoaren kultura dira turismo eredu propio honetarako potentziala duten eremuak. Beterri Buruntzako Turismo mahaia sortzea proposatzen dugu.

Azkenik, eskualdeko industrialde eta enpresen trantsizio energetikoa gauzatzea ezinbestekoa da. Horretarako, eskualdeko plana landuko dugu eta enpresentzako energia bulegoa sortu, mankomunitatearen bidez. Gai horretan eskualdeko herrietan eta, bereziki, Hernanin egindako lanketa abiapuntu ezin hobea da.

**Nos comprometemos a trabajar para avanzar en el empleo, transición energética y movilidad sostenible.**

Empleo. Elaboraremos un plan general y compartido con ayuntamientos y agentes, apostando por el empleo inclusivo. También crearemos las condiciones para reforzar la Economía Social Transformadora en colaboración con agentes comarcales como Beterri Saretuz.

En el caso del turismo, al igual que en Usurbil, proponemos una oferta basada en la identidad, los valores, la naturaleza, el patrimonio y los proyectos transformadores. La vía verde de Plazaola y la cultura de la sidra son dos áreas con potencial para este modelo turístico propio. Apostamos por la creación de la mesa de Turismo de Beterri Buruntza.

Por último, es imprescindible llevar a cabo la transición energética de los polígonos y empresas de la comarca. Para ello, elaboraremos un plan comarcal y crearemos una oficina de energía para las empresas a través de la Mancomunidad. La experiencia en esta materia en los pueblos de la comarca y, especialmente, en Hernani, es un punto de partida idóneo.



## Mugikortasun jasangarrirantz pausoak eman

Egun dauden Autobus zerbitzuak aztertu eta emakida berriarekin inposatutako maiztasun zein geralekuen murrizketak konponduko ditugu, baita zerbitzu berriak sortu ere.

Linea berrien proposamenak: Astigarraga eta Hospitaleak zein Unibertsitatearen arteko loturak bermatzeko zerbitzuak, baita Urnieta eta Lasarte-Oria lotzeko autobus zerbitzu berri bat ere.

Bizikletaren sustapenari dagokionez, Lasarte-Oria eta Urnieta arteko lotura behingoz eraiki, eta estrategikoa den Lasarte-Oria, Urnieta, Andoain eta Hernaniko bizikleta korridorea lotzea lortuko da, Andoaindik Donostiara konexioa bermatuz.

## Avanzar hacia la movilidad sostenible

Analizaremos los servicios de Autobuses existentes y revertiremos las restricciones en frecuencias y paradas impuestas con la nueva concesión. Además, proponemos nuevos servicios.

Propuesta nuevas líneas: Servicios para garantizar las conexiones entre Astigarraga y Hospitales, y la Universidad, así como un nuevo servicio de autobuses para unir Urnieta y Lasarte-Oria.

Promoción de la bicicleta. La prioridad es materializar la conexión entre Lasarte-Oria y Urnieta, conectando el corredor ciclista estratégico de Lasarte-Oria, Urnieta, Andoain y Hernani, garantizando la conexión desde Andoain a Donostia.



## Industria gunetarako mugikortasun berria

Industrialde eta enpresa-poligonoek beste hiriguneeek baino motordun bidaia-bolumen handiagoa sortzen dute. Gure proposamena industria gunetako mugikortasun eredu berriak adosteko parte hartze prozesuak gauzatzea da.

Beraietan, inplikaturako eragileen parte hartzearekin, langile, sindikatu zein enpresa buruekin, industria gunetara joan etorriak egiteko langileek dituzten irisgarritasun-arazoak eta beharrezko konponbidez hitz egingo da.

Parte hartze prozesu honekin, mugikortasun plan propioak sortu eta lanerako joan etorriak burutzeko garraio mota eraginkor eta jasangarrienak martxan jarriko lirateke.

## Nueva movilidad a las zonas industriales

Los polígonos industriales generan un mayor volumen de viajes motorizados que otros núcleos urbanos. Proponemos llevar a cabo procesos participativos para consensuar nuevos modelos de movilidad en los polígonos industriales.

En los mismos, y con la participación de los agentes implicados, trabajadores, sindicatos y líderes empresariales, se analizarán los problemas de accesibilidad para desplazarse a los polígonos industriales y de las posibles soluciones.

Así, se crearían planes de movilidad propios y se implementarán las medidas para conseguir desplazamientos más eficientes y sostenibles.



# Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



**Maddalen  
Iriarte  
Okiñena**

Gipuzkoako  
Ahaldun Nagusirako  
hautagaia

Candidata a  
Diputada General  
de Gipuzkoa

*Aprovechemos todas  
las posibilidades que  
tiene Gipuzkoa, para  
que nadie se quede  
atrás.*

-

*Mejorar para avanzar*

**ehbildu**

 @MaddalenIriarte

 Maddalen Iriarte Okiñena

 maddaleniriarteokinena

 ehbildu.eus

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.